

KOMUNIKAZIO-EGITASMOEN ERAGINKORTASUNA NEURTZEN

Iñaki Iurrebaso (Aztiker)
Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

EHU/UPVren XXIX. Donostiako Uda Ikastaroak – XXII. Europar Ikastaroak
2010eko ekainak 23

Beharra eta nahiaren artean: Balio ote du egindakoak?

- ❑ Komunikazio-egitasmoen emaitzak ezagutu beharra – nahia- ikusi da: ebaluazio zehatzak egin beharra
- ❑ Euskararen inguruko kanpainen ebaluazioak oso urriak dira
- ❑ Ebaluazioaren helburua: egitasmoaren aurretik sorturiko nahiak (helburuak) lorturiko emaitzekin erkatzea; arrakasta neurtzea, hutsak detektatzea eta egiteko geratzen dena definitzea



Beharra eta nahiaren artean: Balio ote du egindakoak?

- Izaera publikoko kanpainen hiru ezaugarri izan ohi dituzte:
 1. **Helburua**: izaera publikoak komunikaziotik harago doazen helburuetara (soziologia eta zientzia politikoak zer esana badute) eramaten ditu kanpainak. Gizarte erantzukizuna bezalako kontzeptuen garrantzia azpimarratu behar da.
 2. **Helmena**: oro har, informazio hutsetik harago, portaeretan ere eragitea nahi izan ohi du. Helburuak *continuum* batean jarri ohi dira.
 3. **Heldutasuna**. Xede-taldeak zenbateraino ezagutzen duen gaia, eta zenbateraino sentsiblea den .



Ebaluazio-motak

IRIZPIDEAK

1. Noiz ebaluatzen da?:

- Ebaluazio formatiboa
- Bildumazko ebaluazioa (edo sumatiiboa)

2. Nork ebaluatzen du?:

- Kanpo-ebaluazioa
- Barne-ebaluazioa
- Ebaluazio mistoa

3. Zer eta zertarako ebaluatzen da?:

- Beharren ebaluazioa
 - Exekuzioaren ebaluazioa
 - Inplementazioa eta jarraipena
- Produktuaren ebaluazioa
 - Eraginkortasuna, efikazia
 - Emaitzak, eragina

4. Nola ebaluatzen da?:

- Metodologia kuantitatiboa
- Kualitatiboa
- Esperimentala



Diseinu-fasean ebaluaziorako adierazleak helburuen arabera definitu beharraz

- Helburu orokorrak → Eraginak Adierazleak
- Espezifikoak → Emaitzak Adierazleak
- Operatiboak → Ekintzak Adierazleak



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Hainbat esperientzia interesgarri

AIPATUKO DITUGUN EBALUAZIOAK

- ❑ Dóna corda al català ("*Eman giltza katalanari*"). (Generalitat de Catalunya) 2005
- ❑ Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren kanpainen oihartzuna, 2008



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainaren ebaluaketak:

Dóna corda al català (2005)

- ❑ Helburu orokorra: katalanaren erabilera sustatzea (batez ere eremu ez formaletan eta pertsona artekoa)

- ❑ Bigarren mailako helburuak (espezifikoak)
 - Hizkuntzaren erabilera modu naturalean sustatzea, egunerokoan eta inposatua ez denaren pertzepzioa sustatzea.
 - Katalana aisialdiarekin eta irudi modernoarekin elkartzea gazteek katalanarekin gehiago elkartzeko asmoarekin.
 - Immigranteak katalana ikastera animatzea gizarte abegikor batean integraziorako modu eraginkorra dela erakutsiz.



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Dóna corda al català (2005)

□ Ekintza-helburuak:

- Publizitateko ekintzak telebistan, irratan, prentsa idatzian, internet, kartelak...
- Erakusketak, mobilizazioak, lehiaketak...
- Diru-laguntzen deialdiak

□ Xede-taldeak: katalana jakin arren, oro har erabili ohi ez duten katalanak, edota katalanetik gaztelaniara beharrik gabe jotzen dutenak.

- 25-45 urte bitarteko pertsonak
- 15-29 bitarteko gazteak
- Immigrazioko populazioa



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Dóna corda al català (2005)

□ Irudia:



□ Mezua:

- Lotsarik gabe hitz egin
- Hitz egin askatasunez
- Hasteko, katalanez hitz egin

□ Kanpainaren aurrekontua:

- 1.058.516 euro

Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Dóna corda al català (2005)

EBALUAKETA

- Administrazio berak eta kanpoko enpresek egindako ebaluaketa

- Metodo eta teknikak
 - Eztabaida taldeak (5)
 - Inkesta (n=251)



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Dóna corda al català (2005)

KANPAINAREN EBALUAKETAREN EMAITZAK: HAINBAT ZERTZELADA

- Kanpaina ondo hartu dute, oro har, herritarrek: eragin baikorra. Jendeak gustuko izan ditu leloa, abestia, irudia, tonua...
- Kanpainak ondo hedatu du mezu nagusia *"hitz egin katalaneraz"*

Taula 12. L'anunci m'ha impulsat a parlar en català

| | D'acord | Una mica d'acord | Una mica en desacord | En desacord |
|--------------------|---------|------------------|----------------------|-------------|
| Catalanoparlants | 18,9 | 15,9 | 17,1 | 47,5 |
| Castellanoparlants | 27,4 | 22,6 | 16,7 | 33,3 |
| Immigrants | 38,1 | 26,5 | 12,0 | 22,9 |

- Ez ditu hainbeste hedatu bigarren mailako mezuak
 - *"lotsarik gabe hitz egin"*
 - *"askatasunez hitz egin"*
 - *"lehen hitza katalaneraz"*
- Hainbat hutsune: herritarrek uste izan dute atzerritar etorri berriei zuzendutako kanpaina zela...



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren kanpainen oihartzuna, 2008

ABIAPUNTUA

Komunikazio kanpainera bideratutako ahalegin eta baliabideen eraginkortasunaren inguruko zalantza. Susmo ezkorrak urtetan.

- ❑ **Ikerketaren helburua:** lehenengo argazki bat... kanpaina horien oihartzuna neurtzeko (oroitzen diren edo ez). Zehazki:
 - Bi kanpaina zehatzen oihartzuna neurtzea, zenbait jenderengana iritsi ziren jakiteko.
 - ❑ Gurasoei bideratutako kanpaina
 - ❑ Gazteei bideratutako kanpaina
 - Iritsi ziren kasuetan, mezua ulertu eta ondo jaso al duten jakitea...
 - Horrez gain, bide batez:
 - ❑ Egoera soziolinguistikoariari buruzko datuak.
 - ❑ Hedabideen kontsumoaren argazkia.
- ❑ **Teknika:** inkesta.



Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren kanpainen oihartzuna, 2008

METODOLOGIA OHARRAK

Ikerketa teknika: telefono bidezko inkesta.

Unibertsoa: 12 urtetik gorako Lezoko, Pasaiaiko, Errenteriako eta Oiartzungo herritarrak (62.510 lagun).

Lagina: 409 herritar. Laginketa estratifikatuaren bidez hautatu dugu etxea; sexu eta adinaren arabera kuoten bidez elkarrizketatu beharreko pertsona. Lagin desorekatua gaztetxo eta gazteen azpilaginak ziurtatzeko (emaitzak ustiatzeko orduan, unibertsoko parametroen arabera haztatu ditugu).

Landa-lana 2008ko urriaren 27 eta azaroaren 6 bitartean egin dugu. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

Akats tartea: $\pm\%4,9$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=\%50,0$ denerako.




Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren kanpainen oihartzuna, 2008

OARSOALDEKO EUSKARA ZERBITZUAREN KANPAINEN OROIMENA

- Herritarren bi herenek baino gehiagok (%70,1) ez dituzte Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuak egindako kanpainak gogoratzen
- Gainerakoek (%29,9), badute nola edo halako oroimen bat:
 - %8,4k berez
 - %13,4k "pista" gehiago emanda
 - %8,1ek, kanpainen gauzatze zehatzen bat




Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren kanpainen oihartzuna, 2008

GURASOEI BIDERATUTAKO KANPAINEN OROIMENA

- Bost herritarretatik lauk (%80,3) ez dute gogoratzen gurasoei zuzendutako Mankomunitatearen kanpainarik.
- Haur txikien gurasoen artean, ordea, erdiak baino gehiagok badu nolabaiteko oroimen bat: %21,5ek berez gogoratu du, %17,0k "lagunduta", eta %18,5ek kanpaina horren osagaien baten berri badu gutxienez.




Hizkuntzaren inguruko komunikazio kanpainen ebaluaketak:

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren kanpainen oihartzuna, 2008

GAZTEEI BIDERATUTAKO KANPAINEN OROIMENA

- Herritar gehien-gehienek (%86,8) ez dute gogoratzen gazteei zuzendutako Euskara Zerbitzuaren kanpainarik.
- Gazteen bi herenek ere (%67,6) ez dute ezer gogoratzen.
- Beste muturrean, oso gutxi dira (herritarren %0,8, gazteen %2,3) kanpaina hori *berez* gogoratu dutenak.



Azken gogoetak

- ❑ Ziurrenik "*zerbait ez dabil ondo*" intuizioak arrazoi izango du.
- ❑ Neurketa hauek, **azterketa hauek egitea aurrerapausoa da (errentagarritasunaren ikuspegitik)**. Erabiltzeko, ikasteko, aldatzeko, hobetzeko, eraginkorragoak izateko.
- ❑ **Ikerketak bi unetan** izan dezake garrantzia. Ebaluaketa eta Adierazle Sistema.
- ❑ **Ez da erraza. Lan sistema berria** eskatzen du. Lan kulturaren baitan eskema aldaketa.
- ❑ **Sistema berriaren ezaugarriak:**
 - Planifikatua (aldez aurretik) eta esku hartze prozesuan integratua
 - Sistematikoki egin behar dira. Jakintza-ezagutza metatuz.
 - Estandarizatua (alderagarritasuna ziurtatuz)
 - Metodo eta teknika aniztasuna
 - Eraginkorra, praktikoa, erabilterreza
- ❑ **Elkarlanean** egitearen onurak.



KOMUNIKAZIO-EGITASMOEN ERAGINKORTASUNA NEURTZEN

Iñaki Iurrebaso (Aztiker)
Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

EHU/UPVren XXIX. Donostiako Uda Ikastaroak – XXII. Europar Ikastaroak
2010eko ekainak 23